- 2.— Sobre la base de los valores fundamentales recogidos en el apartado anterior, los principios inspiradores de la política familiar de cada administración pública vasca en el ámbito de sus respectivas competencias serán los siguientes:
- a) Responsabilidad pública. Las administraciones públicas vascas deberán garantizar, en el ámbito de sus respectivas competencias, la articulación, regulación y aplicación efectiva, al menos, del conjunto de medidas previstas en la presente ley.
- b) Universalidad. Las administraciones públicas vascas deberán garantizar el acceso de todas las familias a las prestaciones y servicios definidos como universales en la presente ley o en el resto del ordenamiento jurídico, sin que los requisitos establecidos pongan en cuestión este principio inspirador.
- c) Igualdad y equidad. Las administraciones públicas vascas deberán fomentar el respeto a los diversos tipos de familia, cualquiera que sea su composición y tamaño o la naturaleza de las relaciones de pareja y filiación sobre las que estuviera fundada cada unidad familiar, prestando, en virtud del principio de equidad, una mayor protección a las familias que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad.

- d) Sustapena. Euskal herri-administrazioek familiak betetzen duen eginkizuna aitortu, sustatu eta babestuko dute, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasunerako eta balio-transmisiorako eragile nagusia den aldetik.
- e) Aurrea hartzea. Euskal herri-administrazioek behar diren neurriak taxutuko dituzte egoera bereziki ahulean dauden familietan laguntzarik ezari, babesik ezari, egokitzeko ezintasunari, bazterketari, abandonuari edo babesgabetasunari aurrea hartzeko.
- f) Gizarte-ekimenaren parte-hartze aktiboaren sustapena. Euskal herri-administrazioek familiei babesa, arreta eta laguntza emateko planak eta programak egiten eta aplikatzen gizarte-ekimenak parte har dezan sustatuko dute.
- g) Bitartekotza. Euskal herri-administrazioek behar diren baliabideak taxutu eta aplika daitezen sustatuko dute familia barruko gatazkei aurrea hartzeko eta gatazka horiek murrizteko edo bideratzeko.
- h) Aukerak. Euskal herri-administrazioek behar diren baliabideak sustatuko dituzte, adingabeko seme-alabak eta beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaindu eta horiei arreta emateari dagokionez familiek aukera bat baino gehiago izan dezaten eskura.

4. artikulua. – Helburuak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren familia-politikak berak eta politika horren esparruan taxuturiko neurri guztiek helburu hauek izango dituzte:

- a) Familia-mota guztien eskubideak sustatzea eta babestea, eta haien ongizate-maila hobetzen laguntzea.
- b) Familietan umeak eta nerabeak ondo babesturik egongo direla bermatzea.
- c) Edozein familia-proiekturi ekiteko eta nahi den haur-kopurua izateko dauden oztopoak progresiboki ezabatzen edo murrizten laguntzea.
- d) Etxeko eta laneko erantzukizunak uztartu ahal izateko erraztasunak ematea, baita emakumea lan-munduan sartzeko eta haren karrera profesionala garatzeko ere
- e) Familian gizonen eta emakumeen erantzukizunpartekatzea finkatzen laguntzea, batez ere adingabeko seme-alabak zaindu eta hezteari dagokionez eta beren kasa moldatzen ez diren pertsonei arreta emateari dagokionez.
- f) Belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasuna sustatzea.
 - g) Familiaren babes ekonomikoa bermatzea.
- h) Egoera bereziki ahulean dauden familietan gizarte-bazterketari aurrea hartzea.

- d) Promoción. Las administraciones públicas vascas reconocerán, fomentarán y apoyarán el papel de la familia como principal agente de la solidaridad intergeneracional e intrageneracional así como de la transmisión de valores.
- e) Prevención. Las administraciones públicas vascas articularán las medidas necesarias para prevenir situaciones de desasistencia, indefensión, inadaptación, marginación, abandono o desprotección que puedan afectar a las familias que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad.
- f) Promoción de la participación activa de la iniciativa social. Las administraciones públicas vascas promoverán la participación de la iniciativa social en la elaboración y aplicación de los planes y programas de protección, atención y apoyo a las familias.
- g) Mediación. Las administraciones públicas vascas promoverán la articulación y la aplicación de los recursos pertinentes encaminados a prevenir, disminuir o encauzar los conflictos en las relaciones familiares.
- h) Elección. Las administraciones públicas vascas promoverán los medios necesarios para facilitar a las familias posibilidades de elección en relación con el cuidado y la atención a sus hijos e hijas menores de edad, así como en relación con las personas en situación de dependencia.

Artículo 4.- Objetivos.

La política familiar de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el conjunto de medidas articuladas en su marco perseguirán los siguientes objetivos:

- a) Promover y proteger los derechos de todos los tipos de familia y contribuir a la mejora de su nivel de bienestar.
- b) Garantizar la protección de la infancia y la adolescencia en el seno de la familia.
- c) Contribuir a la progresiva eliminación o reducción de los obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado.
- d) Facilitar la conciliación de las responsabilidades familiares y laborales, así como la incorporación de la mujer en el mercado de trabajo y el desarrollo de su carrera profesional.
- e) Contribuir al afianzamiento de la corresponsabilidad de hombres y mujeres en el ámbito familiar, en particular en el cuidado y educación de los hijos e hijas menores de edad y en la atención a las personas que se encuentren en situación de dependencia.
- f) Fomentar la solidaridad intergeneracional e intrageneracional.
 - g) Garantizar la protección económica de la familia.
- h) Prevenir la exclusión social en las familias que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad.

- i) Gizartea bera orokorrean eta gizarte-eragileak ere familiak betetzen duen eginkizunaz sentsibilizatzea, baita familia babestu, sustatu eta laguntzea bermatu beharraz ere.
- j) Familiako gatazkei eta indarkeriari aurrea hartzea eta halakoak murriztea.
- **5.** artikulua. Erakundeen arteko koordinazioa eta entitate pribatuen lankidetza.
- 1.— Familiak hainbat alderdi duenez, lege honetan hari babesa, arreta eta laguntza ematearren arautu diren neurriak erakundeen jarduera-eremu material guztietatik hartu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da gai honetako eskumenak dituzten erakunde publiko guztien artean lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko bide eraginkorrak zabaltzea, familiei laguntzeko erakunde arteko planen esparruan eta lege honetan aurreikusitako erakunde-antolaketaren bidez.
- 2.— Euskal herri-administrazioak gai hauen inguruan diharduten entitate pribatuen lankidetza lortzen saiatuko dira, lege honetan familiak babestu, sustatu eta laguntzeko arautu diren neurriak diseinatzen eta aplikatzen esku har dezaten.

6. artikulua. – Familia-errenta estandarizatua.

1.— Laguntza edo zerbitzu jakin bat jasotzea, prestazioaren zenbatekoa edo zerbitzuaren ordainketa errenta-mailak baldintzaturik badaude, familia-errenta hartuko da kontuan. Hainbat familia-mota dagoenez, eta egoerak era askotarikoak direnez, eta guztiak ekitatez hartu behar direnez, errenta hori familiaren tamainaren eta osaeraren arabera estandarizatuko da.

Estandarizazio-sistema zehatza, erregelamendu bidez, dena delako laguntza edo zerbitzua kudeatzen duen administrazioak edo sailak zehaztuko du, laguntza edo zerbitzuaren arabera.

2.– Familia-politiken arloan, homologoak diren laguntzentzat, familia-errentaren estandarizazio-sistema bera eta laguntza jasotzeko muga berak ezarriko dira.

II. TITULUA

FAMILIEI BABESA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

I. KAPITULUA

ARDURAPEAN SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO DIRU LAGUNTZAK

7. artikulua. – Definizioa.

Beren ardurapean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ezarritako diru-laguntzen bidez, seme-alabak mantentzeko eta zaintzeko eginkizunean sortzen diren premia ekonomikoei erantzuten laguntzen da.

8. artikulua. – Eskubide subjektiboa.

- i) Sensibilizar a la sociedad en general y a los diferentes agentes sociales acerca del papel de la familia y de la necesidad de garantizar su protección, promoción y apoyo.
- j) Prevenir y reducir los conflictos y la violencia en el entorno familiar.

Artículo 5.– Coordinación interinstitucional y cooperación de las entidades privadas.

- 1.— En atención al carácter pluridimensional de la realidad familiar, las medidas de protección, atención y apoyo reguladas en la presente ley deberán darse desde los diversos ámbitos materiales de actuación institucional, y por ello resulta imprescindible el establecimiento efectivo de cauces de colaboración y coordinación eficientes entre todos los organismos públicos competentes, en el marco de los correspondientes planes interinstitucionales de apoyo a las familias y a través de la organización institucional prevista en la presente ley.
- 2.— Las administraciones públicas vascas procurarán la cooperación de las entidades privadas que intervienen en este ámbito de actuación en el diseño y aplicación de las medidas de protección, promoción y apoyo a las familias reguladas en la presente ley.

Artículo 6.- Renta familiar estandarizada.

1.— Cuando el acceso a determinadas ayudas o servicios o la cuantía de la prestación o el pago del servicio estén condicionados por el nivel de renta, se utilizará la renta familiar, estandarizándola en función del tamaño y composición de la unidad familiar, con el fin de dar un trato más equitativo a los distintos tipos y situaciones familiares.

El sistema concreto de estandarización se determinará reglamentariamente por la administración o departamento que gestione la ayuda o servicio en función de su naturaleza.

2.— En el ámbito de las políticas de familia, para las ayudas que sean homólogas se establecerá el mismo sistema de estandarización de la renta familiar y los mismos umbrales de acceso.

TÍTULO II

MEDIDAS DE PROTECCIÓN, ATENCIÓN Y APOYO A LAS FAMILIAS

CAPÍTULO I AYUDAS ECONÓMICAS DE APOYO A LAS FAMILIAS CON HIJOS E HIJAS A CARGO

Artículo 7.- Definición.

Las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo contribuyen a atender las necesidades económicas relacionadas con el mantenimiento y cuidado de los hijos e hijas.

Artículo 8.- Derecho subjetivo.

Beren ardurapean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko diru-laguntzak, aurreko artikuluan definitu diren horiek, eskubide subjektiboa dira, bete beharreko baldintzak betetzen badira.

9. artikulua. – Eskubide subjektiboaren titularrak.

Beren ardurapean seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboaren titularra aita edo ama izango da, edo aita eta ama.

Beren ardurapean adingabeak dituzten beste pertsona batzuk ere har daitezke aitaren edo amaren parekotzat, erregelamendu bidez.

- 10. artikulua. Ardurapeko seme-alabengatikako diru-laguntza.
- 1.— Diru-laguntza hau ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko emango da, eta hura mantentzeko eta zaintzeko gastuak ordaintzen laguntzeko da. Besteak beste, eskubidea sortzen duen semearen edo alabaren adinaren arabera zehaztu daiteke laguntzaren zenbatekoa.
- 2.– Seme-alabetakoren batek ezintasun edo mendetasunen bat baldin badu, handitu egingo da seme edo alaba horri dagokion diru-laguntza erregelamendu bidez
- 3.— Haur bat baino gehiagoz erdituz gero, edo ume bat baino gehiago adoptatuz gero, edo umea atzerrian adoptatuz gero, aparteko diru-laguntzak egongo dira. Halakoetan, laguntzaren zenbatekoa zehazteko, zenbat ume izan edo adoptatu diren, edo atzerrian adoptatuak zenbat diren, eta familiako aitaren eta amaren errentamaila hartuko da kontuan.
- 4.– Orobat, adingabeen harrera egiten duten familientzako laguntzak arautuko dira.
- 5.— Eusko Jaurlaritzak bata bestearen atzetik onartutako familiei laguntzeko erakunde arteko planen esparruan, euskal herri-administrazioak progresiboki zabalduz joango dira ardurapeko seme-alaba adingabengatik ematen diren zuzeneko diru-laguntzak, 2020. urtean Europar Batasunaren mailan izateko.

II. KAPITULUA NORBERAREN BIZITZA, FAMILIA ETA LANA UZTARTZEKO NEURRIAK

11. artikulua. – Definizioa.

Eusko Jaurlaritzak norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzeko ezarritako familientzako diru-laguntzak ondoko xedeak dituzten laguntzak dira: adingabeko seme-alabak zaintzeko edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartzean edo lanaldia laburtzean izandako diru-sarreren galera konpentsatzea, zati batean behintzat; adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak etxean bertan zaintzeko norbait kontratatzeak sortutako gastuak ordaintzen laguntzea; eta familiek

Las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo definidas en el artículo anterior se configuran como un derecho subjetivo, siempre y cuando se reúnan los requisitos de acceso.

Artículo 9.- Titulares del derecho subjetivo.

Será titular del derecho subjetivo a las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo el padre y/o la madre.

Reglamentariamente podrán asimilarse a la condición de padre o madre otras personas con menores a su cargo.

Artículo 10.– Ayuda económica por hijos e hijas a cargo.

- 1.— Esta ayuda económica se otorgará por hijo o hija a cargo, con el objeto de contribuir a la cobertura de los gastos asociados a su mantenimiento y cuidado, pudiéndose determinar la cuantía de la ayuda en función, entre otros criterios, de la edad del hijo o hija que genera el derecho.
- 2.— En el supuesto de que alguno de los hijos e hijas presente una discapacidad o situación de dependencia, la cuantía de la ayuda correspondiente por dicho hijo o hija se incrementará reglamentariamente.
- 3.— Se establecerán ayudas económicas de carácter extraordinario por parto o adopción múltiple o adopción internacional, determinándose su cuantía en función del número de hijos o hijas del parto o adopción múltiple o adopción internacional y del nivel de renta del padre y la madre integrantes de la unidad familiar.
- 4.— Así mismo, se regularán las ayudas para las familias que realicen acogimientos de menores.
- 5.— En el marco de los sucesivos planes interinstitucionales de apoyo a las familias aprobados por el Gobierno Vasco, las administraciones públicas vascas procederán a extender progresivamente las prestaciones referentes a ayudas económicas directas por hijos e hijas menores de edad a cargo con el fin de alcanzar la convergencia con la Unión Europea en el horizonte del año 2020.

CAPÍTULO II MEDIDAS PARA LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA PERSONAL, FAMILIAR Y LABORAL

Artículo 11.- Definición.

Las ayudas económicas a las familias establecidas por el Gobierno Vasco para facilitar la conciliación de la vida personal y familiar y la vida laboral son ayudas destinadas a compensar, al menos parcialmente, la pérdida de ingresos originada por una excedencia laboral o una reducción de jornada de trabajo para el cuidado de los hijos e hijas menores de edad o de las personas en situación de dependencia, o a contribuir al pago de los gastos originados por la contratación de una persona para el cuidado, a domicilio, de los mencionados hijos

adingabeko seme-alabak haur-eskoletan matrikulatzean izaten dituzten kostu ekonomikoak diruz laguntzea.

Eta eszedentzia hartzerakoan edo lanaldia laburtzerakoan lanean oztoporik izan ez dadin, enplegatzailentzat ere hainbat neurri ekonomiko ezartzen dira, Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko, aipaturiko neurriak baliatu dituzten langileen ordez beste langile batzuk kontratatzen dituztenerako.

12. artikulua.- Tipologia.

Eusko Jaurlaritzak norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea errazteko ematen dituen diru-laguntzak tipologia honetakoak izango dira:

- a) Adingabeko seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia laburtu duten langileentzako dirulaguntzak.
- b) Beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia laburtu duten langileentzako diru-laguntzak.
- c) Familiek haur-eskoletako gastuak ordaintzeko egiten dituzten ekarpenetarako diru-laguntzak.
- d) Seme-alabak etxean bertan zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.
- e) Enplegatzaileentzako diru-laguntzak, adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia laburtu duten langileen ordez beste langile batzuk kontrata ditzaten.
- 13. artikulua. Adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia laburtu duten langileentzako diru-laguntzak.
- 1.— Artikulu honetan arauturiko langileentzako diru-laguntzak emango badira, ondoko bi egoeretako batean egon behar dute langileek, lege-xedapen edo banakako nahiz taldekako itun batetik sorturiko egoera hauetako batean:
- a) Adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren adinekoak zaintzeko eszedentzia.
- b) Adingabeko seme-alabak zaintzeko edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko lanaldi-laburtzea.

Eszedentziak eta lanaldi-laburtzeak diruz laguntzeko, nahitaezkoa da neurri horietaz baliatu diren langileek beren lansariaren zati bat galtzea eszedentzia edo lanaldi-laburtze horren eraginez.

2.– Bai besteren konturako langileak eta bai kooperatibetako bazkide langileak eta lan-bazkideak izan

o hijas o personas en situación de dependencia, y dirigidas a subvencionar el coste económico que soportan las familias con hijos e hijas menores de edad matriculados en escuelas infantiles.

Asimismo, al objeto de impulsar la eliminación de los posibles obstáculos laborales ante las situaciones de excedencias o de reducciones de jornada, se arbitran medidas económicas dirigidas a empleadores para sufragar el coste de cotización a la Seguridad Social, en el caso de contratación de personal sustituto de los trabajadores o trabajadoras acogidas a las anteriores medidas.

Artículo 12.- Tipología.

Las ayudas económicas que el Gobierno Vasco otorgará para facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral obedecerán a la siguiente tipología:

- a) Ayudas económicas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada para el cuidado de hijos e hijas menores de edad.
- b) Ayudas económicas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada para el cuidado de personas en situación de dependencia.
- c) Ayudas económicas para contribuir a las aportaciones realizadas por las familias para sufragar los gastos de las escuelas infantiles.
- d) Ayudas para la contratación de cuidadores a domicilio para hijos e hijas.
- e) Ayudas económicas a los empleadores para la contratación de personas sustitutas de los trabajadores o trabajadoras acogidas a las medidas de excedencia y reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas menores de edad y para el cuidado de personas en situación de dependencia.
- Artículo 13.- Ayudas económicas a personas trabajadoras en situación de excedencia laboral o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas menores de edad o personas en situación de dependencia
- 1.— Las ayudas económicas a personas trabajadoras reguladas en el presente artículo se otorgarán cuando éstas se acojan a cualquiera de estas dos situaciones, derivadas de disposición legal o de pacto individual o colectivo:
- a) Excedencia para atender al cuidado de hijos e hijas menores de edad o personas mayores en situación de dependencia.
- b) Reducción de la jornada de trabajo para cuidar a hijos o hijas menores de edad o para atender a personas en situación de dependencia.

Solamente se subvencionarán aquellas excedencias y reducciones de jornada de trabajo que supongan una reducción efectiva en la remuneración de las personas trabajadoras acogidas a las mismas.

2.- Podrán ser titulares de estas ayudas las personas trabajadoras por cuenta ajena y las personas socias tra-

daitezke laguntza hauen titularrak, eszedentzia hartu edo lanaldia laburtzen dutenean.

Eta beren konturako langileak ere izan daitezke laguntza honen titularrak, baldin eta, adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko, beren lanbidea edo lana aldi baterako uztea edo gutxiago lan egitea erabakitzen badute, egoera hori lan-araudian arauturik dagoen moduan betiere.

- 14. artikulua. Familiek haur-eskoletako gastuak ordaintzeko egiten dituzten ekarpenetarako diru-laguntzak.
- 1.– Laguntzaren xedea da beren ardurapean semealabak dituzten familiek haur-eskolen ohiko funtzionamendurako egindako ekarpenetan laguntzea.
- 2.– Familia batek bere ardurapean dituen umeak haur-hezkuntzako lehenengo zikloko haur-eskoletan matrikulaturik baldin badaude -eskolak titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak izan-, familia horrek jaso dezake diru-laguntza hau, dagokion erregelamendu bidezko garapenean ezartzen denaren arabera.
- 3.— Erregelamendu bidez, familia-errenta estandarizatu bat zehaztuko da, eta diru-laguntza hau jasotzeko baldintza ekonomikoak errenta horren arabera ezarriko dira, familia-unitatearen tamaina eta osaera kontuan harturik.
- 15. artikulua. Adingabeko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko diru-laguntzak.
- 1.– Adingabeko seme-alabak etxean bertan zaintzeko langile bat kontratatzea diruz lagunduko da.
- 2.— Erregelamendu bidez, familia-errenta estandarizatu bat zehaztuko da, eta diru-laguntza hau jasotzeko baldintza ekonomikoak errenta horren arabera ezarriko dira, familia-unitatearen tamaina eta osaera kontuan harturik.
- 16. artikulua. Enplegatzaileentzako diru-laguntzak, adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia laburtzen duten langileen ordez beste langile batzuk kontrata ditzaten.

Adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko, langileren batek eszedentzia hartzen badu edo lanaldia laburtzen badu, eta haren ordez beste langileren bat kontratatzen bada, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduko du ordezko kontratazio hori.

17 artikulua. – Enpresentzako laguntzak, familia eta lana uztartzen lagun dezaten.

Eusko Jaurlaritzak sustatze-lana egingo du enpresek langileen familia eta lana uztartzen lagunduko duten neurriak har ditzaten. bajadoras o socias de trabajo de las sociedades cooperativas cuando se acojan a una situación de excedencia o de reducción de jornada de trabajo.

Asimismo, podrán ser titulares de esta ayuda las personas trabajadoras por cuenta propia que cesen temporalmente o reduzcan su actividad profesional o laboral para atender al cuidado de sus hijos o hijas menores de edad o personas en situación de dependencia, en los términos en los que dicha situación se regule en la normativa laboral.

- *Artículo 14.* Ayudas económicas para contribuir a las aportaciones realizadas por las familias para sufragar los gastos de las escuelas infantiles.
- 1.— La ayuda tendrá por objeto contribuir a las aportaciones realizadas por las familias con hijos e hijas a su cargo para la cobertura de los gastos de funcionamiento ordinario de las escuelas infantiles.
- 2.— Podrán ser beneficiarias de las ayudas económicas las familias que tengan a su cargo niños y niñas que se encuentren matriculados en escuelas infantiles, de titularidad pública o privada, del primer ciclo de educación infantil, de acuerdo con lo que se establezca en el correspondiente desarrollo reglamentario.
- 3.— Dependiendo del tamaño y composición de la unidad familiar, los requisitos económicos para acceder a las ayudas se establecerán atendiendo a la renta familiar estandarizada que se determine reglamentariamente.
- *Artículo 15.* Ayudas económicas a la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos e hijas menores de edad.
- 1.— Se subvencionará la contratación de una persona para el cuidado a domicilio de hijos e hijas menores de edad.
- 2.— Dependiendo del tamaño y composición de la unidad familiar, los requisitos económicos para acceder a las ayudas se establecerán atendiendo a la renta familiar estandarizada que se determine reglamentariamente.
- Artículo 16.— Ayudas económicas a los empleadores para la contratación de personas sustitutas de los trabajadores o trabajadoras acogidas a las medidas de excedencia y reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas menores de edad y para el cuidado de personas en situación de dependencia.

El Gobierno Vasco subvencionará la contratación de personas para sustituir a trabajadoras y trabajadores que se hayan acogido a una excedencia o reducción de jornada para el cuidado de hijos o hijas menores de edad o de personas en situación de dependencia.

Artículo 17.– Apoyo a las empresas para que contribuyan a la conciliación de la vida laboral y familiar.

El Gobierno Vasco fomentará que las empresas adopten medidas que contribuyan a la conciliación de la vida familiar y laboral de las personas trabajadoras.

III. KAPITULUA FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

- 18. artikulua. Familiei etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan laguntzeko berariazko neurriak.
- 1.— Oro har, bere etxebizitza-politikaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak tratamendu berezia emango die adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak beren ardurapean dituzten familiei, baita familia ugariei eta egoera bereziki ahulean dauden familiei ere, hala nola guraso bakarrekoei, genero-indarkeria edo terrorismo-ekintzak jasan dituztenei edo antzeko egoeraren batean dauden beste familia-motei, familia horiek etxebizitza errazago eskuratzeko kupo batzuk ezartzearren.
- 2.— Bereziki, etxebizitza berritzeko laguntza modura zenbat diru eman erabakitzerakoan, familia-unitatearen tamaina eta osaera hartuko ditu kontuan Eusko Jaurlaritzak. Eta, era berean, etxebizitza hobetzeko diru-laguntzak emateko orduan, haren irisgarritasuna bermatzeko obrei emango zaie lehentasuna.
- 3.– Bere lurzoru-politikaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak kontuan izango du industrialdeetan edo enpresa-parkeetan zenbait ekipamendutarako gutxieneko eremu bat gordetzea, hala nola haurtzaindegietarako eta enpresa-jantokietarako, hartara langileek errazago uztartu ahal izan ditzaten lana eta familia.
- 19. artikulua. Familiei hezkuntzaren arloan laguntzeko berariazko neurriak.
- 1.— Oro har, Eusko Jaurlaritzak, bere hezkuntza-politikaren esparruan, umeak eta gazteak 3.1 artikuluan jasota datozen balioetan heziko direla bermatu beharko du.
- 2.– Bereziki, Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko neurri hauek garatu beharko ditu:
- a) 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolak sendotzea.
- b) Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartuak izateko sistemako puntuaketan, familia ugariek lehentasuna izango dute. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira Hezkuntzaren Lege Organikoan onarpenerako ezarririk dauden bestelako lehentasun-irizpideak ere.
- c) Orobat, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, terrorismo-ekintzak jasan dituzten familiek eta genero-indarkeria jasan duten familiek lehentasuna izango dute onarpen-sistemako puntuaketan.
- d) Bestelako laguntza-neurri osagarriak ere hartuko dira, curriculumetik aparte, aurrez ezarritako ordutegi eta egutegiko arretaren osagarri, norberaren bizitza, familia eta lana uztartu ahal izateko gizonek zein emaku-

CAPÍTULO III SERVICIOS DE APOYO A LAS FAMILIAS

Artículo 18.– Medidas específicas de apoyo a las familias en el ámbito de la vivienda y el suelo.

- 1.— Con carácter general, el Gobierno Vasco, en el marco de su política de vivienda, concederá un tratamiento singular a las familias con hijos e hijas menores de edad o personas en situación de dependencia a su cargo, así como a las familias numerosas y a las familias que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad, como pueden ser las familias monoparentales, las que hayan sido objeto de violencia de género o de actos terroristas u otros tipos de familia en situaciones similares, en orden al establecimiento de cupos que faciliten el acceso de estas familias a la vivienda.
- 2.— En particular, el Gobierno Vasco tendrá en cuenta el tamaño y composición de la unidad familiar al establecer la cuantía de la ayuda de rehabilitación de la vivienda. Del mismo modo, se primarán aquellas obras destinadas a la mejora de la vivienda tendentes a garantizar su accesibilidad.
- 3.— El Gobierno Vasco, en el marco de su política de suelo, contemplará en los polígonos industriales o en parques empresariales la reserva de la superficie mínima necesaria para la construcción de equipamientos como guarderías y comedores de empresa, al objeto de facilitar la conciliación de la vida laboral y familiar de las personas trabajadoras.

Artículo 19.- Medidas específicas de apoyo a las familias en el ámbito de la educación.

- 1.— Con carácter general, el Gobierno Vasco, en el marco de su política educativa, deberá garantizar la educación de los niños, niñas y jóvenes en los valores recogidos en el artículo 3.1.
- 2.– En particular, el Gobierno Vasco deberá desarrollar las siguientes medidas de apoyo a la familia:
- a) Consolidación de las escuelas infantiles para los niños y niñas de edades comprendidas entre 0 y 3 años.
- b) Las familias numerosas tendrán un trato preferente en la puntuación en el régimen de admisión en centros públicos y privados concertados, de conformidad con lo previsto en la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas, y sin perjuicio de lo establecido en la Ley Orgánica de Educación respecto a otros criterios prioritarios de admisión.
- c) Asimismo, se otorgará un trato preferente en la puntuación en el régimen de admisión en centros públicos y privados concertados a las familias víctimas de actos de terrorismo y a las familias víctimas de violencia de género.
- d) Adopción de medidas de atención complementaria, de carácter extracurricular, al horario y calendario escolar preestablecido, de modo que se facilite la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de mujeres

meek. Halaber, hezkuntza-etapa guztietan eskola-jantokien zerbitzu osoa egotea bermatuko da, eskariaren arabera.

- e) Eskola-bitartekotza sustatuko da, eta horixe izango da eskola-gatazkak ebazteko lehentasunezko era.
- f) Eskolen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko jarduera koordinatuak bultzatuko dira, eskoletan atzemandako gizarte-arazo gero eta handiagoentzat erantzun integral bat sortzeko, familia-unitatea izaten baita jarduera horien hartzailea.
- g) Orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu bat sustatuko da familientzat, hezkuntzaren eta garapen afektiboaren arloko arazoetarako eta beste gai batzuetan sor daitezkeen gatazketarako.
- **20. artikulua.** Familiei kultura-, kirol-, aisia- eta astialdi-arloetan laguntzeko berariazko neurriak.

Euskal herri-administrazioek kultura-, kirol-, aisiaeta astialdi-arloetako ondasun eta zerbitzuetara iristeko bidea erraz dezaketen neurriak hartuko dituzte. Horretarako, helburu hauek lortzen saiatuko dira:

- a) Bermatzea familiek irispidea izango dutela Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-arloko ondasun eta bitartekoetara eta horietan parte hartuko dutela, berdintasunean.
- b) Familia guztiei kultura-arloan aukera berberak eskaintzea. Horretarako, baliabide gutxien duten familiak positiboki bereizi beharko dira, gizartera biltzeko moduan, eta berdin dio baliabide falta ekonomia-, gizarteedo kultura-arlokoa edo norberaren baitakoa den.
- c) Komunikabideek familien intereseko informazioa zabaldu, familientzako argitalpenak egin eta telebistaprogramak diseina ditzaten sustatzea, horrela adingabeek pixkanaka kontzientzia har dezaten familia-mota guztiei zor zaien errespetuaz eta lege honen 3. artikuluan adierazi diren familia-politikaren balio inspiratzaileak errespetatzeaz.
- d) Familiei zuzenduriko ekitaldi kulturalak eta artistikoak antola daitezen sustatzea.
- e) Ikastetxeak oporretan direnerako, astialdi- eta aisia-jarduerak antola daitezen bultzatzea, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzeko zerbitzu gisa, familien beharren arabera.
- *21. artikulua.* Familiei gizarte-zerbitzuen arloan laguntzeko berariazko neurriak.
- 1.— Oro har, euskal herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, behar diren neurriak hartuko dituzte gizarte-zerbitzuen arloko beren esku-hartzeetan familia-alderdia ere bermatzeko, hala egitea egoki denean.
- 2.– Bereziki, eta gizarte-zerbitzuei buruzko araudian une bakoitzean xedaturik dagoena ere betez, euskal he-

- y hombres. Asimismo, se garantizará la existencia de un servicio completo de comedores escolares en todas las etapas educativas en función de la demanda.
- e) Fomento de la mediación escolar como forma de resolución preferente de las situaciones de conflicto escolar.
- f) Impulso de las actividades coordinadas entre los centros escolares y los servicios sociales de base con el fin de crear una respuesta integral a los crecientes problemas sociales detectados en el ámbito escolar y cuyo destinatario suele ser la unidad familiar.
- g) Fomento de un servicio de orientación y asesoramiento dirigido a las familias, en relación con problemas educativos y de desarrollo afectivo y otros conflictos que se puedan plantear.

Artículo 20.— Medidas específicas de apoyo a las familias en el ámbito de la cultura, deporte, ocio y tiempo libre.

Las administraciones públicas vascas adoptarán las medidas que puedan facilitar el acceso a los bienes y servicios existentes en materia de cultura, deporte, ocio y tiempo libre. Al efecto velarán por:

- a) Garantizar, en condiciones de igualdad, el acceso y la participación de las familias en los bienes y medios culturales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- b) Ofrecer las mismas oportunidades culturales a todas las familias, arbitrando para ello acciones de discriminación positiva, de carácter inclusivo, en favor de aquellas que dispongan de menores recursos económicos, sociales, culturales o personales.
- c) Fomentar que los medios de comunicación social divulguen información de interés para las familias, editen publicaciones y diseñen espacios televisivos dirigidos a la familia, de manera que las personas menores de edad puedan adquirir de manera gradual una conciencia de respeto a los distintos tipos de familia existentes y de respeto de los valores inspiradores de la política de familia expuestos en el artículo 3 de la presente ley.
- d) Promover y fomentar la organización de manifestaciones culturales y artísticas dirigidas a las familias.
- e) Impulsar actividades de tiempo libre y ocio en periodos vacacionales escolares, como servicio que contribuye a facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, en función de las necesidades familiares.
- *Artículo 21.* Medidas específicas de apoyo a las familias en el ámbito de los servicios sociales.
- 1.— Con carácter general, las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, adoptarán las medidas necesarias, en materia de servicios sociales, para garantizar, cuando resulte pertinente, la dimensión familiar de sus intervenciones.
- 2.– En particular, y sin perjuicio de lo que la normativa sobre servicios sociales disponga en cada momento,

rri-administrazioek familiei arreta eta laguntza emateko zerbitzuak garatuko dituzte, honako arlo hauetan:

- a) Familientzako orientazioa eta arreta psikosoziala.
- b) Familia-bitartekotza eta elkarguneak.
- c) Etxez etxeko laguntza.
- d) Beren kasa moldatzen ez direnak zaintzen dihardutenentzako laguntza (atseden emateko zerbitzuak).
 - e) Larrialdietako aterpea eta babesa.
- f) Haurren babesa eta umeak familian hartzeko eta adoptatzeko laguntza.
- g) Arriskuan dauden familietan esku hartzeko programak.
- h) Gizarte-arriskuko egoerei aurrea hartzea, batez ere familietako indarkeria-egoerei.
- **22.** *artikulua.* Familiei gizarteratzearen arloan laguntzeko berariazko neurriak.

Eusko Jaurlaritzak, gizarteratzearen arloko eskumenak dituen sailaren bitartez, gizartetik bazterturik dauden edo hala geratzeko arriskua duten familia guztiei behar bezala gizarteratzen laguntzeko hartu beharreko neurriak hartuko ditu, bai neurri ekonomikoak eta bai familia horiek gizartera eta lan-mundura biltzeko zerbitzuak antolatuz. Horretarako, esku hartzeko politika orokorrak erabiliko baditu ere, egoera edo esparru hauetan berariaz jardungo du:

- 1.– Familia-unitatearen premiak ezagutzeko diagnosiak egitea, familiaren esparruan esku hartzeko egitasmoak lantzeko.
- 2.– Enplegu-programetan eta gizartera eta lan-mundura biltzeko programetan, hauek lehenestea:
- a) Zuzeneko familia-zamarik baldin badute, oinarrizko errentaren titularrak.
 - b) Guraso bakarreko familietako kideak.
- c) Egoera bereziki ahulean dauden familia ugarietako kideak.
- 3.— Gizartera eta lan-mundura biltzeko prozesuak eta seme-alaben zainketa uztartzeko zerbitzuak martxan jartzea, uztartzeko zailtasun bereziak daudenean.
- 4.— Neurri juridikoak eta ekonomikoak bultzatzea, gertakari batzuen ondorioz baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen baldintzak hobetzeko. Gertakari horiek bi izango dira: batetik, alargun gelditzea, eta bestetik, hitzarmen judizialki onartuan edo ebazpen judizialean ezarritako pentsio osagarriak eta mantenupentsioak ez jasotzea. Bigarren hori gertatzeko egoerak hauek izan ohi dira: ezkontza-deuseztasuna, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio- edo mantenu-prozesua.

las administraciones públicas vascas desarrollarán servicios de atención y apoyo a las familias en las áreas siguientes:

- a) Orientación familiar y atención psicosocial.
- b) Mediación familiar y puntos de encuentro.
- c) Asistencia domiciliaria.
- d) Apoyo a cuidadores de dependientes (servicios de respiro).
- e) Alojamiento y acogida en situaciones de urgencia.
- f) Protección de la infancia y apoyo al acogimiento familiar y la adopción.
- g) Programas de intervención familiar en situaciones de riesgo.
- h) Prevención de situaciones de riesgo social, especialmente de situaciones de violencia en el ámbito familiar.

Artículo 22.– Medidas específicas de apoyo a las familias en el ámbito de la inserción social.

- El Gobierno Vasco, a través de su departamento competente en inserción social, adoptará las medidas necesarias para facilitar la adecuada integración social de todas las familias en situación o riesgo de exclusión social, arbitrándose para ello medidas económicas y servicios para su inclusión sociolaboral. A tal efecto, y sin perjuicio del carácter global de sus políticas de intervención, actuará de forma específica en las siguientes situaciones o áreas:
- 1.— Realización de diagnósticos de necesidad de la unidad familiar para elaborar proyectos de intervención en el ámbito familiar.
